

Batxilergoa 1. maila

Hautazkoa	Deskribapena
Laborategi teknikak	Laborategi teknikak ikasgaiak zientzia, teknologia eta industria arloetan funtsezkoak diren laborategiko prozesu eta analisi metodologiak irakasten ditu. Ikasleek laborategiko ingurune batean modu seguru eta eraginkorrean lan egiteko gaitasuna eskuratzea, tresna aurreratuen erabileran trebatzea eta analisi emaitzak interpretatzeko eta aurkezteko gaitasuna garatzea. Ikasgai honek, oro har, kimika, biologia, ingurumen-zientziak eta osasun-arloko ikasketekin lotura duten ikasleentzat interes berezia izan ohi du.
Teknologia Industrialak I	Proiektuak, talde lanak eta Teknologia Industrialerako oinarriak hartzea da helburua. Zientzia eta Teknologia egiteko asmoa dutenentzako lagungarri izatea.
IKT I	Gaur egungo munduan digitalizazioak gero eta garrantzi handiagoa du. IKTak ikasgaiak, baliabide digitalak menderatzeko eta zure sormenari bide emateko aukera izango duzu. Guztia modu dinamiko eta praktikoa, talde-lanean eta arazoak konpontzen ikasiz. - Webguneak diseinatuko dituzu, interneteko eduki sortzaile bihurtuz. - Bideoak editatuko dituzu komunikazio bisuala hobetzeko. - Ofimatikako tresna nagusiak erabiliko dituzu, edozein lanetan lagungarriak izango direnak. - Robotika eta jolasen programazioan murgilduko gara. - Zure segurtasun digitala babesteko, sare sozialen eta internet erabilera arduratsua ikasiko duzu. - Adimen artifizialaren funtzionamendua eta aplikazioak ezagutuko dituzu.
Ahozko komunikazio atzerriko hizkuntzan (Ingelesa)	*Oso ondo edo gehiago izatea ingelesean 4. DBHn. Ikasgai honetan, teknologia berrietaz baliatuko gara ingelera edukiak lantzeko zein sakontzeko. Klasean ahozko aurkezpenak egingo ditugu (banaka edo taldeka), era askotako gaiak landuz, esaterako teknologia, adiskidetasuna, hondamendi naturalak, galtzeko arriskuan dauden animaliak, etab. Ebaluazio bakoitzean bi proiektu egingo dira. Proiektu horien bidez, adibidez, ikasleek beren film laburra grabatu ahal izango dute ingelesez, edo influencer, erreportari edota kazetari bihurtu. Horrez gain ingeleseko eztabaidak egingo ditugu gelan, bideoak grabatuko ditugu, abestiak landuko ditugu, ingelesaren bitxikeriak ikasiko ditugu, institutuko irratia erabiliko dugu gure podcastak grabatzeko, eta aurkezpenetako gaiekin lotutako hiztegia landuko dugu. Era berean ikasleen talde lanak eta aurkezpen lanak plataforma bilakatuko ditugu. Bereziki Googlek eskaintzen duen Classroom plataformaz baliatuko gara klasean ikasitako edukiak sakontzeko eta garatzeko. Ikasleek software edo tresna desberdinak erabili ahal izango dituzte beraien ahozko lanak klasean prestatzeko eta aurkezteko (PowerPoint, Genial.ly, Prezi...etab.).

Gaur egungo gatazkak	Egungo munduaren gatazkak eta errealitateak, eta komunikabideekin eta sare sozialekin duen erlazioa irakasgaia ikasleei esparru kontzeptual bat emateko helburuarekin sortu zen; gaur egungo problematika nagusiei buruzko hausnarketaren bidez eta postmodernitatearen eragin handiena duten pentsalari batzuek egungo gizarteari buruz duten ikuspegiaren bidez, ikasleei teknologia berriek, Komunikabideek eta Sare Sozialek informazioaren kudeaketan jotzen duten funtsezko eginkizunean eta iritzi publikoaren orientazioan duten eraginean pentsatzeko aukera eman diezaieten. Ikasleei gako jakin batzuk eman nahi zaizkie inguratzen gaituen errealitate soziala, politikoa eta ekonomikoa ulertzeko, eta gai horiei buruz eta gure garaiari buruz hausnartzen duten egileengana hurbilketa txiki bat egin nahi da, informazioaren tratamendua aztertuz bertan arreta jartzeko, batez ere Komunikabideetan eta Sare Sozialetan. Informazioaren kudeaketa beti izan da funtsezkoa gizarteentzat, baina iraultza teknologikoak eta sare sozialek aldaketa handiak ekarri dituzte. Beraz, gai horiei buruzko ezagutza txiki bat eta hausnarketa ezinbestekoak dira gure ikasleek egungo gizartea ulertzeko eta autonomia handiagoa garatzeko, parametro berrien pean funtzionatzen duen mundu honetan belaunaldi digitalean jaiotako herritar gisa.
Frantsesa	Ikasturte honetan, ikasleen komunikatzeko konpetentzia mailak gero eta konplexuagoak diren testuinguruetan gero eta hobeto moldatzeko aukera ematen die. Lau gaitasunak jorratuko direnez arren, eta ahozko eta idatzizko adierazpenari garrantzi handiagoa emango zaio. Era berean, Frantziako eta beste herrialde frankofonoen kultura, ohiturak eta gizarte arloak ikasten jarraituko da, hizkuntza modu zabal eta integratuan barneratzeko. Iturri eta ezaugarri anitzeko dokumentuen bidez eta metodologia aktiboa eta deigarria abiapuntuz, ezagutza berriak indartzen dira eta hizkuntzen eta kulturen arteko konparaketak eta loturak ezartzen dira.

Batxilergoa 2. maila

Hautazkoa	Deskribapena
Administrazio eta kudeaketa oinarriak	Ikasgaiak, ekintzailtza-proiektu bat sortzeko eta garatzeko prozesua lehen eskutik bizitzeko aukera eskeintzen dizu, ideia sorkuntzatik, hori errealitate bihurtzeraino. Ikuspegi praktiko baten bidez, enpresaren funtsezko arloak ezagutzeko aukera izango duzu, hala nola giza baliabideak, kontabilitatea, finantzaketa, marketina eta komunikazioa, haien funtzionamendua eta enpresa edo proiektu baten arrakastan duten lotura ulertuz. Ikastaro hau enpresarekin lotutako ikasketak egin nahi dituzten ikasleei ez ezik, zientzia-arloko ikasleei ere zuzenduta dago, proiektuen kudeaketarako tresna baliagarriak eskaintzen baititu, eta edozein ekimenetan osagai ekonomikoaren garrantzia nabarmentzen baitu.
Psikologia	Gizaki egiten gaituzten ezaugarri harrigarriak aztertzeko ikasgaia. Batez ere, gure pentsamendua eta gure jokabidea baldintzatzen dituzten barne (genetika) eta kanpo (gizartea) faktore eta prozesuei begira. Nola funtzionatzen du gure oroimena? Zergatik ahazten ditut gauza batzuk baina beste batzuk ez? Zergatik sentitzen gara modu batera eta ez bestera? Zerk motibatzen gaitu? Nola azaldu zergatik naizen naizen bezalakoa? Ezagutzen dut nere burua? Askea naiz? Zergatik bilatzen dut besteen onespina? Zer da nahaste mental bat? Zer trauma psikologiko bat? Zein terapia psikologiko ezberdin daude? Zer gertatzen da nire burmuinean ni kontzienteki jakin gabe? Zer da haluzinazio bat? Zein da amets egitearen balioa? Ikasgai honetan, eduki teoriko eta praktikoen bidez, hala nola, liburuak, filmak, proiektuak, aurkezpenak, txostenak, gizakia izatearen egoera konplexuari modu zientifiko eta enpatiko batean erreparatuko diogu, psikologiaren balioa zein den ulertzeko.
Jarduera fisiko, aisia eta osasuna	Gazteek astialdiaz egiten duten erabilerarekin eta sedentarismoaren datuekin, osasungarriak ez diren ohiturekin eta haurren obesitatearekin edo gehiegizko pisuarekin gero eta kezkatuago dagoen gizarte honetan, ezinbestekoa da norabidea aldatzea. Gero eta ebidentzia gehiago daude akzio motorrak maila psikologikoan, fisiologikoan, sozialean eta, azken batean, gure ikasleen garapen integralari ekartzen dizkion onurei buruz. Ildo horretan, Jarduera Fisikoa, Aisia eta Osasuna aukerako jakintzagaiak beste urrats bat egiten du bizitza aktiboa eta osasungarria lortzeko bidean. Era berean, jarduera fisikoarekin, aisiarekin eta osasunarekin erlazionatutako etorkizuneko ikasketetarako zubi eta orientabide modukoa da irakasgai hau, etorkizunean ikasketa horiei aurre egitea ahalbidetuko duten ezagutza espezifikoa, konpetentziak eta trebetasunak ematen ditu-eta. Ildo horretan, irakasgai honen bitartez ikasleek gai izan behar dute jarduera fisikoarekin, aisiarekin eta osasunarekin erlazionatutako lanbideak eta ikasketak zuzenean ezagutzeko, eta, hartara, beren interes, helburu eta beharren arabera dagozkien erabakiak hartzeko. Irakasgaiak, batez ere, ikuspegi praktikoa izango du, eta ikasleek ezagutza teorikoak garatu ahal izango dituzte jarduera desberdinetan islatuz, hala nola, indar-erresistentzia zirkuituak egitea, bakoitzaren interesen arabera sasoian egoteko plan indibidualizatuak egitea, edo dieta osasungarri bat diseinatzea. Alderdi ludikoa eta alderdi soziala ahaztu gabe, era askotako jolas eta kirolez gozatu ahal izango baitute, gizarte-harremanak aberastu eta hobetu ahal izateko. Beharrezko tresnak emango zaizkie, etorkizunean erabaki adimendunak hartu ahal izan ditzaten, beren aisia-espazioa okupatzeko, bizi-kalitate hobea lortze aldera.

Frantsesa	Ikasturte honetan, ikasleen komunikatzeko konpetentzia mailak gero eta konplexuagoak diren testuinguruetan autonomia eta zuzentazunarekin moldatzeko aukera ematen die. Lau gaitasunak jorratuko dira beti ere ahozko eta idatzizko adierazpenean sakonduz. Gainera, titulu ofizialak lortzeko helburuarekin, eredu konkretuak landuko dira. Era berean, Frantziako eta beste herrialde frankofonoen kultura, ohiturak eta gizarte arloak ikasten jarraituko da, hizkuntza modu zabal eta integratuan barneratzeko. Iturri eta ezaugarri anitzeko dokumentuen bidez eta metodologia aktiboa eta deigarria abiapuntuz, ezagutza berriak indartzen dira eta hizkuntzen eta kulturen arteko konparaketak eta loturak ezartzen dira.
Teknologia Industrial II	Proiektuak, talde lanak eta Teknologia Industrialerako oinarriak hartzea da helburua. Zientza eta Teknologia egiteko asmoa dutenentzako lagungarri izatea.
Geologia eta ingurumen zientziak	Jakintzagai honek lagundu egiten du ikasleek Lur planetari eragiten dioten arazo eta erronken ikuspegi egokia izan dezaten eta, horrela, gure munduaren eraldaketan oinarritutako erabakiak hartzen parte hartu ahal izan dezaten, 2030 Agendaren garapen iraunkorrerako helburuek eta jomugek ezartzen dutenez.